TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Gizarte-etxea
DATA / FECHA: 2020/01/08
HASIERA / INICIO: 20:30
AMAIERA / FINAL: 20:40

BERTARATUAK / ASISTENTES:
ALKATEA / ALCALDE
Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
M.ª Ascensión Larrabaster Lezamiz (EH BILDU)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL
Víctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria
DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera

Busturiko Gizarte Etxean, adierazitako egun eta orduan, Alkate jauna buru zela, Tokiko Gobernu Batzordea bildu zen ohiko saioa lehen deialdian egiteko.
Ekitaldiaren fede eman zuen Udalbatzako idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarez jaunak.
Alkate jaunaren aginduz, ekitaldiari hasiera eman zitzaion, aurretik nahikoa denboraz zinegotziei banatutako gai-zerrendaren arabera, eta akordio-proposamen hauek egin ziren:

En el Gizarte Etxea de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria.
Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.
De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

**1.- Aurreko saioko akta.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, 2019ko abenduaren 18ko saioko akta mahai gainean uztea erabaki zuen, zuzendua izan dadin.

**1.º.- Acta de la sesión anterior.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el acta de la sesión de 18 de diciembre de 2019.

**2.- Enviser enpresaren idazkia.-**

Enviser enpresak, hiri-hondakin solidoak biltzeko zerbitzuaren esleipendunak, 2017ko urritik 2019ko urrira bitarteko inflazioaren egokitzapenagatiko kanona igotzeko eskaera aurkeztu zuen. Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, eskaera onartzea erabaki zuen.

**2.º.- Escrito de Enviser.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la petición de incremento de canon por adecuación a la inflación para el periodo octubre 2017 a octubre de 2019 presentada por la empresa Enviser, adjudicataria del servicio de recogida de residuos sólidos urbanos.

**3.- Euskara-ikastaroengatiko dirulaguntza-eskaera.-**

Euskara-ikastaroak egin izateagatik dirulaguntza eskatzeko aurkeztutako dokumentazioa ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, J. A. M.ri 171,00 €-ko dirulaguntza ematea.

**3.º.- Petición de subvención por cursos de euskera.-**

Vista la documentación presentada en relación a la petición de subvención por haber realizado cursos de euskera, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó conceder una ayuda económica de 171,00 € a J. A. M.

**4.- F. J. A. D.ek eskatuta izapideturiko ondare-erantzukizuneko espedientea.-**

Jarraian, F. J. A. D.ek eginiko erreklamazioarekin zerikusia duen eta Udal honetan izapidetu den espedientearen berri izan zuen Tokiko Gobernu Batzordeak, baita espedientearen egileak eginiko proposamen-txostenarena ere. Hona hemen azken horren edukia:

"AURREKARIAK

LEHENA.- 2018ko azaroaren 27an, F. J. A. D.ek Busturiko Udalaren aurkako 264,69 €-ko erreklamazioa aurkeztu zuen, Altamira auzoan mozturiko zuhaitz bat zela eta, bere jabetzakoa zelakoan; horrek ondare-erantzukizuneko espedientea izapidetzea ekarri zuen.

BIGARRENA.- Datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezko instrukzio-egintza guztiak egin dira,

**4.º.- Expediente de responsabilidad patrimonial tramitado a instancias de F. J. A. D.-**

Seguidamente la Junta de Gobierno Local fue informada del expediente tramitado en este Ayuntamiento en relación a la reclamación formulada por F. J. A. D. y el informe-propuesta elaborado por la instructora del expediente, cuyo contenido es el siguiente:

“ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO.- Con fecha 27 de noviembre de 2018, F. J. A. D. presentó una reclamación contra el Ayuntamiento de Busturia de 264,69 €, como consecuencia de la tala de un árbol que considera de su propiedad en el barrio de Altamira; ello dio lugar a la tramitación de un expediente de responsabilidad patrimonial.

SEGUNDO.- Se han realizado todos los actos de instrucción que son necesarios para la determinación,

eta horien arabera egingo da ebazpen-proposamena, dagozkion probak egin eta gero.
HIRUGARRENA.- Udal honetako Alkatetzak gertakariei buruz igorritako txostena jasota, entzunaldia zabaldu zen. Bertan, A. jaunak alegazioak aurkeztu zituen; hauexek, laburbilduta:
1.- Eragindako kaltea zerbitzu publikoen ezohiko funtzionamenduaren ondorio da, bere jabetzako intxaurrondo baten mozketa irregularraren ondorioz eragindako kaltearen ziotzat hartzea merezi du eta ez da aitzakia jabetza pribatuan kokatutako zuhaitz bakar baten hostoei bide publikoaren zati oso baten egoera eskasa leporatzea, lur mugakideek beren jabetzaren barruan intxaurrondoak, hurritzak eta zipresak baitituzte eta horien hostoak ere bide berean erortzen baitira.
2.- Bide publikoaren zati honen zaintza- eta kontserbazio-egoera txarra Udalak bide-zati hori garbiketa- eta mantentze-egoera ezin hobean izateko duen betebeharra ez betetzearen ondorio da.
3.- Bazegoen betearazpen-agindua ematea zuzeneko edo zeharkako kalteak eragin dituen jabeari eskatzeko, halakorik balego.
4.- Eskrituretan ageri diren datuen arabera, lursail hori Txirapozu etxearena da, eta intxaurrondoa haren jabetzakoa da.
5.- Busturiko Udala berdeguneak eta hiri-zuhaiztiak babestera behartuta dago, beraren araudiaren arabera.
6.- A. jaunak inausketa-lanak egin ditu, Udalak eskatu dion bi aldietan, adarrak hiri-bidera irteten zirenean, hain zuzen.
7.- Udalak beti aipatzen zuen Larrondo baserriko sarreratik goranzkoa, baina sekula ez hortik beheranzkoa.
8.- Udalak sortu du arazoa, Larrondo gainean eta aldamenean eraikin berria eraikitzeko baimena emanda. Esan daiteke, gainera, hirigintza-baldintza batzuk bete gabe lortu dituela udal-baimenak.
OINARRI JURIDIKOAK
LEHENA.- Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 32. artikulutik 37.era bitartekoak, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearekin bat datozenak aplikatu behar dira.
BIGARRENA.- A. jaunak txosten honen aurrekari faktikoetan aurkeztutako alegazioei dagokienez, gogoeta juridiko hauek egin behar dira:

conocimiento y comprobación de los datos, en virtud de los cuales se va a proceder a realizar la propuesta de resolución, habiéndose practicado las correspondientes pruebas.
TERCERO.- Recibido el informe emitido por la Alcaldía de este Ayuntamiento sobre los hechos ocurridos, se abrió período de audiencia en el que el Sr. A. formuló las alegaciones, que resumidamente afirman:
1.- Que el daño causado es consecuencia del funcionamiento anómalo de los servicios públicos y merece ser considerado cauda del daño ocasionado con la tala irregular de un nogal de su propiedad y que no es excusa achacar a las hojas de un único árbol, situado en propiedad privada, el estado deficiente de todo un tramo de vía pública, ya que los terrenos colindantes tienen dentro de su propiedad nogales, avellanos y cipreses, cuyas hojas también caen sobre el mismo camino.
2.- Que el mal estado de cuidado y conservación de esta parte de la vía pública, es por falta del cumplimento de la obligación que tiene el Ayuntamiento de mantener las misma en un estado óptimo de limpieza y mantenimiento.
3.- Que se podía haber dictado una orden de ejecución para exigir al propietario causante de los daños directos o indirectos si los hubiera.
4.- Que, según los datos obrantes en las escrituras, ese terreno es propiedad de la casa Txirapozu, y el nogal era de su propiedad.
5.- Que el Ayuntamiento de Busturia está obligado a la protección de zonas verdes y arbolado urbano por su propia normativa.
6.- Que el Sr. A. ha procedido a la corta las dos veces que el Ayuntamiento se lo ha requerido, cuando las ramas sobresalían sobre la vía urbana.
7.- Que el Ayuntamiento siempre se refería desde la entrada del caserío Larrondo hacia arriba y sin mencionar para nada de ahí hacia abajo.
8.- Que el Ayuntamiento ha provocado el problema por permitir una edificación recién construida encima y en colindancia con Larrondo, de la que se puede afirmar que además es resultado de conseguir permisos municipales sin haber cumplido diversas condiciones urbanísticas.
FUNDAMENTOS JURÍDICOS
PRIMERO.- Resultan de aplicación los artículos 32 a 37 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y concordantes de la Ley

1.- Ez da egiaztatu 40/2015 Legearen 32. artikuluak eskatzen duen benetako kaltea; izan ere, zuhaitza Busturiko Udalak jabari publikoaren zatitzat jotzen duen eremu batean moztu zen, eta beti mantendu izan da jabari publikoko gisa (urteko garbiketa eta sastrakak kentzea, etab.).

2.- Intxaurrondoaren dohaintza zaharrei eta Txirapozu lursaileko lurzoruari buruzko aipamen idatziak alde batera utzita, A. jaunak ez du inoiz egiaztatu lursailaren eta zuhaitzaren titulartasuna.

3.- Ondorioz, ez da egiaztatu A. jaunaren ondarean eragindako kaltea.

Aurrekariak eta emandako iritziak kontua hartuta, EBAZPEN-PROPOSAMEN hau egin da:

LEHENA.- F. J. A. D. jaunari ez onartzea kalte-ordaina jasotzeko eskubidea, Busturiko Udaleko garbiketa-zerbitzuak behar bezala bete baitu bere egitekoa.

BIGARRENA.- Ebazpen-proposamen hau Udaleko Batzorde Informatzaileari bidaliko zaio, bertan dauden dokumentu, alegazio eta informazio guztiekin batera, jasotako proposamenari buruzko irizpena egin dezan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 81.2. eta 91. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Hori ikusita eta bere oinarrien arabera, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, A. jaunak egindako erreklamazioa ez onartzea.

39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

SEGUNDO.- Que en relación a las alegaciones presentadas por el Sr. A. y referidas en los antecedentes fácticos del presente informe, procede realizar las siguientes consideraciones jurídicas:

1.- No ha quedado acreditada la existencia real del daño exigida por el art. 32 de la Ley 40/2015, dado que la tala del árbol se realizó en una zona que el Ayuntamiento de Busturia considera que forma parte del dominio público y que siempre ha sido mantenida como tal (limpieza y desbroces anuales, etc…).

2.- Que, al margen de las referencias escritas a antiguas donaciones del nogal y a la pertenencia del suelo a la finca de Txirapozu, en ningún momento se ha acreditado la titularidad del terreno y del árbol por parte del Sr. A.

3.- Que, en consecuencia, no se ha acreditado el daño producido en el patrimonio del Sr. A.

De acuerdo con los antecedentes y consideraciones expuestas, se eleva la siguiente

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

PRIMERO.- No reconocer a D. F. J. A. D. el derecho a recibir una indemnización como consecuencia del normal funcionamiento del servicio de limpieza del Ayuntamiento de Busturia.

SEGUNDO.- Esta propuesta de resolución se remitirá a la Comisión Informativa del Ayuntamiento, junto con todos los documentos, alegaciones e informaciones que obren en el mismo, para que realice dictamen sobre la propuesta recibida, conforme establecen los artículos 81.2 y 91 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

A la vista de ello y en base a sus fundamentos, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó rechazar la reclamación formulada por el Sr. A.

**5.- Class Auto Clássicos, S.L. enpresaren hainbat ibilgailuren zerga-salbuespena.-**

Class Auto Clássicos, S.L. enpresak eskaera egin du bere jabetzako TO-6837-N, BI-0698-BH, VA-6408-Y, BA-1813-U, BI-4336-BT, OU-4266-O, BI-7438-BF, NA-7036-M, O-6226-BX eta M-1884-HT matrikuladun autoak, 2020tik aurrera, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergatik salbuets daitezen, fabrikatu zirenetik gutxienez 25 urte joan direla eta. Zerga arautzen duen Udal Ordenantza Fiskalari jarraiki, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, eskaera

**5.º.- Exención de impuestos de varios vehículos de Class Auto Clássicos, S.L.-**

Dada cuenta de las solicitudes presentadas por Class Auto Clássicos, S.L., por el que solicita la exención, para el año 2020 y sucesivos, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, de los turismos de su propiedad, matrículas TO-6837-N, BI-0698-BH, VA-6408-Y, BA-1813-U, BI-4336-BT, OU-4266-O, BI-7438-BF, NA-7036-M, O-6226-BX y M-1884-HT, por ser unos vehículos con una antigüedad mínima de 25 años desde la fecha de su fabricación, en aplicación de lo dispuesto

onartzea.

en el artículo cuarto de la Ordenanza Fiscal municipal reguladora del Impuesto, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar las solicitudes presentadas.

**6.- María Begoña Alegríaren aparkaleku-txartela.-**

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak igorritako aldeko txostena ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, M. B. A. I.ri hark eskaturiko ezinduentzako aparkaleku-txartela ematea.

**6.º.- Tarjeta de estacionamiento de M. B. A. I.-**

Visto el informe favorable emitido por el Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó conceder la tarjeta de estacionamiento para minusválidos, solicitada por M. B. A. I.

**7.- Eraikin baten eraispena betearazteko agindua.-**

BI-2235 errepideko 45+300 PKan dagoen higiezinaren jabeek ez zutenez bete 64/19 Alkatetza-dekretuaren bidez emandako agindua (eraikina eraitsi, eraikineko eta lursaileko hondakinak –autokarabana barne– kendu, lursaila garbitu eta hura itxi), Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, modu subsidiarioan eraistea higiezina eta ixtea lursaila, Urre S.A. enpresak aurkeztutako aurrekontua onartuta.

**7.º.- Orden de ejecución sobre demolición de edificio.-**

Ante el incumplimiento por parte de los propietarios del inmueble situado en el PK 45+300 de la BI-2235 a su paso por esta localidad de la orden dictada por el Decreto de la Alcaldía 64/19 para que procediesen a la demolición del edificio, la retirada de los residuos de edificio y de parcela (autocaravana incluida), la limpieza de la parcela y el cierre de la misma, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó proceder a la ejecución subsidiaria de la demolición del inmueble y al cierre de la parcela, aceptándose el presupuesto presentado por Urre S.A.

Eta, besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta, adostutakoa oinarri, akta hau idatzi da, Alkate jaunak eta nik, Idazkariak, egiaztatzen dudanak, sinatu duguna.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

Alkatea / El Alcalde,

Izp. / Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez

Idazkaria / El Secretario,

Izp. / Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez